

**ARESTI, TXABI ETXEARRIETA, ETA**

**Felipe Juaristi**

Gabriel Arestik "Josepa Mendizabal Zaldibian" poema, 1974an idatzi zuen. Garai hartan Ea herrian bizi zen. Ez zuen poema bizitzan argitaratu. Karmelo Landak aurkitu zuen Bilboko etxe batean, eta, gero, Susaren edizioan kaleratu zuten, poema argitaragabeen artean. Aresti, dena dela, 1975ean hil zen.

Etarren ama urrikariek  
bakea dute merezi  
bihotz-ikara izugarrian  
dardaraz baitira bizi.

Etarren amek  
asko sufritzen dute.  
Andre hauen bihotzean  
kabitzen da  
munduko min guztia.

Aitak  
Lemoako frentean  
hil zizkieten.

Nebak  
gartzelatik deserrira  
ibili zaizkie  
barreiu.

Eta orain semeak  
kaminoetan  
erortzen zaizkie  
zerraldo...

Etarren amek  
asko sufritzen dute,  
semeak hiltzen dizkietenean  
eta batez ere  
semeek hiltzen dutenean...

Arrosa gorri-zuri  
idien apatsek zapaldua  
bezalakoak dira:  
Andre urrikari hauez  
urriki zaitezte...  
Zeren Euskal Herria  
Axularren sagarroia  
bezalakoa  
da.

Bere egitez ere  
nekez erditzen da  
baina bere faltaz  
nekezago,  
penazago...

Eta ETA  
(lehen zen EDO)

Jautsi zen Euskalerrira  
haren sonaren dirdira;  
Baina sei mila mezak ez dute  
Ekarri bizi berrira.

Txabi Etxebarrietaren heriotza oso sonatua izan zen, eta oso aipatua, euskal munduan, Pardines guardia zibila baino are gehiago, jakina. Txabi Etxebarrietak hil zuen Pardiesn, eta, gero, tragedia greziarraren kanonari jarraituz, bera hil zuten, edo bera hiltzen uzti zieten.

Txabi Etxebarrietaren heriotzak biziki hunkitu zuen Jorge Oteiza. Pietatea irudiaren oinarrian omen dago Txabi Etxebarrieta, Amabirjinaren besoetan. Guztiz da kristaua, guztia ere kristaua zelako garai hartan. Baina *Quosque Tandem* liburuaren bosgarren ediziorako, alegia hogeita hamar urte betetakoan lehen edizio urtetik testu hau idatzi zuen Oteizak berak:

“Yo esperaba colocar en Bentaundi cristianamente como una Cruz en movimiento mi Estela memoria a TXABI ETXEBARRIETA poeta ideólogo entrañable compañero en nuestro FRENTE CULTURAL DE ARTISTAS VASCOS primer caído 1968 en nuestra resistencia al franquismo y sugería en reconciliación placa y una cruz donde fuera muerto el guardia civil”,

Proiektua ez zen gauzatu.

Txabi Etxebarrietaren omenezko poema eta kantak argitaratu ziren. Kanten artean Imanolena dugu, “Lehenko Batean”, eta poemak artean aipagarriak dira Mikel Lasak eta Juan San Martinek idatzitakoak. Ez naiz luzatuko haiek aztertzen. Bai Mikel Lasak eta bai Juan San martinek aire berria ekarri zuten euskal poesiara, eta hautsi nolabait Arestiren ikuspegiarekin. Hortik dator Mikel Azurmendiren keja, “Orain borrokarenean” izeneko poemak, 1972an argitaratua.

Bakez eta lorez aski. Bakezkeritan ez gehiago ari  
eta lorezkeritan ez gehiago. Bakezko bertsuez eta  
lorezko  
bakeaz aski.

Bakezkerik ez gehiago kontak eta lorezkerik ez  
ez gehiago kanta, mezedez:  
borrokaren garaia baita. Orain borrokarenean...

bada, ETaren sorrera mundura 1968an izan zela, Txabi Etxebarrieta hil zutenean, Benta Handin. Txabi Etxebarrieta martiri bihurtu zen, lehen martiria. Ez naiz hasiko hemen aipatzen zer pentsatzen zuen heriotzaz Txabi Etxebarrietak, horretaz Joseba Zulaikak ongi idatzi baitu *ETaren hautsak* liburuan; ezta zer bilatzen zuen edo zer nahi zuen heriotzarekin. Lehen baino gehiago dakigu orain horretaz. Arestik Euskal Herriaz zuen ikuspegia nekez onar zezaketen orduko ETako kideek; are nekezago, gaurkoek. Arestiren “aberria”, ondo zehaztuta dago *Harri eta Herri* liburuan. Euskalduna, langilea eta langileen aldekoa, alegia ezkerrekoa. Ez da oso aberri zabala, denok lasai antzera sar gaitezen. Gizon-emakume asko geratzen dira Arestiren aberritik kanpo, izarpean. Oteizaren etxean ez bezala. Arestiren Euskal Herria, dena dela, oso literarioa da, oso irudimenezkoa. Indar handia hartzen du bertan euskal kulturak, eta are indar handiagoa euskal literaturak, bereziki poesiak.

Poema honetan, Txabi Etxebarrietaren heriotza ekartzen da gogora. “Ekainaren 7 egun” du izenburua. *Harrizko Herri Hau* liburuan dago. 1970ean argitaratu zen liburu hori.

1

Gaizki-biziko elizan  
Ez dira hain onak izan:  
Han sakristauak portatu dira  
sazerdotearen gisan.

Mutikoaren gau hotza;  
urtu zitzaidan bihotza:  
herriagatik hiltzeko edo  
gerturik dago bildotsa.

Ehun mila telegrama  
eta Begoñako ama:  
Horrek guztiok gure mutila  
Bizi berrira darama.

2

Euskal Herriko Gebara.  
Poetak debalde gara;  
Euskal mutilen zede bakarra  
herioaren sega da.

Nola hamorruaren ora,  
Jakin gabe nundik nora,  
Zazpi larrosek hornitu dute  
Mutilaren arkandora.

sagarroiak bere burua  
erditzera  
apoderatzen duen harria  
da.

Asko izan da karloez  
eta arantzeez...  
Hainbeste otoitz...  
hainbeste ezpata-dantza,  
euskal-meza,  
zortziko nagusi,  
alboka,  
txistu...

Hainbeste hostia, alu eta potro...  
Herri honi  
erditzeko tenorea  
tokatu zaio...

Mutilen barrabil ostikatuak  
eta  
neskon diti zigarroz erreak  
dilatazio-minak izan dira  
baina  
andreon sufrimentu-moralarekin  
expulsio-mina  
dator.

Herri kobarde (hain balent) hau  
bere libertateez  
erditzen da

Santa Gurutze honetan...  
Eguzkiaren ateko tortura-lekutik!  
Josepa Mendizabal Zaldibian  
asko penatzen da...

Arestik, poema honetan, "Apirilaren 4 egun" izeneko poeman  
emandako gaia dakar. *Harrizko Herri Hau* liburukoa da.

Herriagatik anaia biek  
asko badute sufritzen,  
euskaldunari odol urdina  
nola ez zaio gorritzen.  
    Baldin bada ederra,  
    bakea, betor gerra,  
libre baikaitu berritzen.  
Nola andreak herriak ere  
neketan dira erditzen.

Indarkeria, historiaren emagin, hori da kontzeptua. Asko zabaldu  
da gure artean, eta denok ezagutzen ditugun ondorioak ekarri ere bai,  
tamalez. Dena dela, eta "Josepa Mendizabal Zaldibian" poemara itzuliz,  
esan behar dut ez dakidala ETA, hain inplizitoki azaltzen den lehen  
poema ote den. Arestik ez du ETA aipatzen, hitzez bederen. Egia ere

Izkribuz eta paperez esan zenidan, Mikel, mintzaira  
biz argitara dituzten izkribu ederretan, Mikel:

«zoaz eta esaiozu Rilke-ri  
izarren hautsa krudela da  
eta hilargiaren esneak  
goragala ematen dit»

Hogeita hamabost urte, uztaila honetan hemezortzian,  
urtetik urte  
ve y dile a Rilke ('ta entzun nahi duen guziari)  
urtetik urte  
zoaz Mikel, zoaz esaten:  
odola gorria zen  
gizona baino lehen

«Amarillo Arlequin de Picasso»-ri, «rojo Pierrot»-i  
(eta guziari)  
zoaz, Mikel, zoaz esaten:  
Gernika gorria dela  
kolorez odolarena  
urtetik urte, ve y dile a Rilke  
izarren krudelkeriak urtez une  
urteroko goragalak urtetik une  
eta badira hogeita hamabost urte luze.

Zenbat ilargiaren esne txar! Zenbat Boabdil-ek utzi  
behar izan du Granada! Zenbat idik ihes egin du  
Gernikatik! Urabaingo ezquila ixilez mintza gabe...  
eta Erandioko karrikak aipa gabe... eta Eibar.

Zoaz Mikel, eta joan zaitetz betirako  
guziei garbiki hauxe esanaz  
(gizonari ez baitzaio ezer hitz ederrez izkutatu behar!):  
odol kolorekoak  
hemengo gizonak

Bakez eta lorez aski. Bakezko lore eta bertsoan  
ez gehiago ari...

Dirudienez, Mikel Azurmendik Mikel Lasari erantzuten dio, alegia  
Mikel Azurmendik Mikel Lasaren poemagintza hartzen du hizpidetzat.  
Bada Mikel Azurmendiren poema honetan, Gabriel Arestiren poesian  
azaldu ez dena, edo, behintzat, nik ikusi ez dudana. Herriarekiko  
konpromiso eta lotura, poliki-poliki, ETArekiko konpromiso eta lotura  
bilakatuko dira, eta borroka armatuaren morroi bihurtuko, beste gauza  
asko bezala.